



***Otso gasetua*** Amaia Hennebutte Millard et Lontxo Yriarte

**Ustiapen pedagogikoa** (2 eta 3. zikloak) Maialen Idoate



# Irakaslearen tresnak :

- Irakurketa sakona (lecture experte)
- Hiztegiari doakion lanketa
- Sekuentziaren desmartxa

# Irakurketa sakona (Dokumentu hauek ustiapenari loturik atzemanen dituzue)

| OTSO GOSETUA |                                                                                                                                                                                                                                                                                                            |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                            |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                   |
|--------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Testua       | p9 Kaka zaharra ... briu-brau ... Harrapaladan<br>p16-17 Ai-Ei- Harrigarr<br>p18-10 Hiru idazkera desberdinak<br>p20-21 ezin ... ezin ...ezin Fitsu ezin egin, sinestezina<br><br>p22-23 kaka metan nahasirik. Otso ipurdi zikin<br>p30-31 Otsoak gidatzen ez zakiene<br>p 42 Sekulako orroa bota zuen ... | p9 Kaka zaharra, egiazko oiloak ... Noizbait, numbait, kamioa geldituko zen ...<br>p11 Bizpahiru oiloaren klikatzeko, zer gutizia zen<br>p12-13 Baina oilo mikorik ez kanpoan...<br>Ezinegona ... Zendako ... Zertarako<br>p14-15 Zer gerta ere, begi ukaldi bat emanen zuen<br>p18-19 Argi artifizialak begiak itsutzen zizkion, Harramantzak belarriak tutatzen zizkion, Usain nazkagarriak muttura erretzen zion.<br>p20-21 ezin ... ezin ...ezin. Fitsu ezin egin, sinestezina<br>p22-23 Ham harriturik, ustegabetarik, erdi jaririk, tapizak eramane ...<br>p24-25 Menturaz, barneko oiloak Otso tripontziarendako!<br>p38-39 Kamioira hurbildu zen... eta barneratu zen<br>p 40-41 "Ez ziren oiloak kamioian, baina bai "chicken-ball-z"-ak!<br>p42-43 Hondatua zen Otso, suntsitua, nazkatua Munduko osoko tristura senti zen oihi hartan<br>p44 Usuiako "Bik-Mak-Oilo" manatu zuen | p9 egiazko oiloak!!<br>Baina oilo mikorik ez kanpoan ...<br><br>p18-19 Argi artifizialak begiak itsutzen zizkion ... Harramantzak belarriak tutatzen zizkion.<br>Usain nazkagarriak muttura erretzen zion.<br><br>p 40-41 "Ez ziren oiloak kamioian, baina bai "chicken-ball-z"-ak!<br><br>p44 Usuiako "Bik-Mak-Oilo" manatu zuen |
| Irudiak      | p4 Otsoa bestinua tee-shirt batekin, begi bat bestea baino gorago.<br>Ilargian, oilo bat bada<br>p7 Otsoak 2 buru ditu<br>p8-9 Otsoaren ipurdi zabala<br>p11 Otsoa " begiak zerurantz begiratzen dute, mihia dilindan du "<br>p12-13 Otsoak lumak ditu buru gainean<br>p16-17 Kaskoak + begiak estaliak!   | p8-9 Otsoak kamiona segitzen du, abantsu airean<br>p11 Otsoa " begiak zerurantz begiratzen dute, mihia dilindan du "<br>p12-13 Begiak bat bestearen baino gorago + lumak<br>p14-15 Begiek gibelarentz begiratzen dute<br>p16-17 Otsoak ahoa idekia du eta begiak handiak                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                   | p10-11 Baserrialde polita, pentze berdea, etxea gorria eta xuria. Urrunago hiri handi bat, argiek<br>p16-17 Oilotegian, oiloak kaiola tipi tipiari, kasko batekin, begiak estaliak. Murrak xuriak dira. Zilo bat arrautzeak errekupepatzeko, tapiza bat kaka biltzeko ...<br><br>p34 Pastenegren publizitatea                     |

|  |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                        |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                    |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 |
|--|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
|  | p18-19 Hiru otso – Grafismo berezia : izarrek heien inguruan + lerroak – Begi borobil aintzekin – ahoa itxura berezi batekin<br>p18-19 Oilak beti kaskoarekin eta begiak estaliak – iduriz zango batekin bakarrik<br>p22-23 Otsoak hortzak tinkatzen ditu - Zangoak albatzen ditu – Besoak luzatuz – Kaka erdian<br>p24-25 Otsoa kaka banean<br>p 26-27 Otsoa ahoa handi idekia , zango baten gainean ...<br>p 28-29 Moto arrosa, tee-shirta bezala, lotura arrosa batekin errotan<br>p30-31 Otsoak, beso eta zangoak luzaturik ditu, ez da bidean ibiltzen<br>p 32-33 Hiri otso moto gainean airean<br>p 34-35 Otsoa zakar ontzi bat buru gainean eta motoz ibiltzen<br>p 36-37 Otsoa banana azal bat buru gainean, aintzinerat makurtua, kamaioa begiratzen, mihia dilindan, ipurdi handia... karrikako argi makurra, moto "hautsia" | p20-21 Otsoa oiloen azpian ezin harrapatuz<br>p22-23 Otsoak hortzak tinkatzen ditu<br>p24-25 Otsoa kaka banean kaiolak pasatzen begiratzen ditu<br>p 34-35 Otsoa zakar ontzi bat buru gainean eta motoz ibiltzen<br>p40-41 Otsoak zerbait borobila ikusten du<br>p42 Tee-shirta kendu du<br>p44-45 Lerro batean da beste animalekin<br>Animalak lodiak dira Badoa paketa batekin                                                   | p 44 Denak lodiak dira                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                          |
|  | Albuma horrek irri egiteko emaitza ematen digu. Pertsona nagusienaren aurpegi itxurak biziki irringarriak dira, bere izateko manera ere aintzean.<br>Otsoak bi buru dituelarik, orri batzuetan 3 alda agertzen delarik irringarria da. Idazleak erabiltzen duen hiztegiak umorea emaitza dio istorioari : hots-izenak, hitz batzuen errepikapena " ezin... "                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           | Otso bat ametsetan, bere ametsaren ondotik dabil... egun oso bidez... ustegabeak ezustekoak bizitzen ditu... enganatuaren dela ohartu aintzin... eta bere ametsaren ondotik debaldetan ibili dela...<br>Desgustatua, bere tee-shirta kentzen du eta usain bezala segitzen... Zendako ez du berri, ezartzen ? (bere ametsa ez dela sekulan geratutako uertu du)<br>Guk, irakurleek, pena (urrikalmentua) badugu otso horrendakoa... | Baserrian, kanpoan, egiazko oilorik ez. Oilotegian, harrabots aintza, usain tsarrak, argi artifizialak... kaskotua industrial Kamioian, oilo kruspetak, denak berdinak Ostatuan, oilo Big Mac-ak usain bezala... Amerikako elikadura, baserri polita baten ondoko hiri batean.<br>Hitzak ingeles ez erakusteko janari ez onak gaintzen gaituela, beti berdina da, Mac Do estatuetan bezala<br>Bestalde, hirian, kamaionak erdi gordetzen duen publizitate bat pastenegrekin (azanahoriak), ... hobeki jan dezagun?... Otso hori, gu gira, gizonetakoak, beste aintzen artean... |

| Denbora   |                                                                                                                      |
|-----------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Testua    |                                                                                                                      |
| Iruditzen | p4-5 Gusa p6-7 Kamioiak argiak piztuak ditu Gusa p9-10 Gusa Hiritik kanpo ? p 11-12 Hiri argitua - Oso gusa p12 .... |
|           | Iruditzen                                                                                                            |
|           | Egun batean irazten den istorio bat                                                                                  |

| Espazioa  |                                                                                                                                                             |
|-----------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Testua    | p4-5 Hirian - Haresiak - p6 karrika banean -                                                                                                                |
| Iruditzen | p6 Hiritik kanpo p8-9 Bidean - p10-11 Baserrialdean Urrunago iria p12-13 Bidean p14-29 arte Oilotegian ondoan eta banean p30...33 Baserrialdean p34 Hirian. |
|           | Iruditzen                                                                                                                                                   |
|           | Toki batean banean den istorioa                                                                                                                             |

**Ikas**  
Ikasak gurean sartu, behar bezala pedagogikoki ikasi, hiru otso... eta hor proposatzen dute telekargatzen  
http://www.ikas.org/baliabideak/IMC3.mp3 otso\_gosetua3.mp3 "Dianouch" musika da, polina da.  
Bada ere Lisardyko eskolan egin zuten animazio filma tipi bat: http://www.ikas.org/baliabideak/Hiru-otso,61-t.html

**Isheleak email**  
Hona kopiatu dudun testua, orainxez eman ditzu idazkera desberdinak. Idazkera horiek hautatzeko, esateko naiz, testutik ahal bezain hurbil esotea, nere ordinarriaren dirudun idazkerak erabiltze. Orrialdeka eman dut testua, baina aldatzen ahal duzu ez bada ustea.  
Amak eman zauten hitz muzik egiazkoak direla eta Xarritonen hiztegiaren arabera ahal direla (harroglan, karrikak). > Ez dut oraino begitatu egia esate...  
Idazkera berezia eman du ingelesez diren hitzetan.  
Marraskilariari libertate osoa eman du bere lanetan. Berak du adibidez pentsatu musika kaskoetan dutela oiloak... Berdin, kanpoetik oilotegia ez du modernoa iduri, Euski Herriko etxea da.  
Segin igortzen dituz ere Amariaren erantzunga triologiari buruz, (ondotik igorri nion galdera bati erantzuteko).  
Bestalde, ikasako gurean, ipuina ezutzen ahal da. Aski interesgarria da.

**Amara Hennebutten email**  
Zure galderari erantzuteko :  
-ez bada triologia lantzen, posible da, edozein albuma hartzea, eta lantzea. Besteak ikusi gabe. (Nik hau egin dut ene 3 zikiokoekin : Otso Gosetua baizik ez dut lantze. Ez gurean lantzeko 3 xerri tipak...)  
-triologia lantze nahi bada, uste dut bakoitzak senditzen duen araber eraman behar duela.  
Nik pertsonalki, maite dut triologiaren orden bat errespetatzea :  
- lehenik 3 xerri tipi : mundu osoan ezagutua baita, eta denek ezagutzen dutelako Haurrendako, hortan ez dago sorpresarik izanen (ipuaren aldetik diot, zeren

eta marrazkien aldetik, bada zeregin...)  
- gero Otsoa, azieria eta ahuntza : gure euskal kulturatik heldu baita, eta gainera deskubritzen dugun ipuin berri bat da. Ahantzia zen ipuin hori. Ondorioz hurren gogoia gehiago piztuko da.  
- eta azkenik Otso Gosetua : aintzira berri bat baita, eta gaureragun gertatzen baita.  
Hona, nik lantzekotan, hola lantzeko nirekin. Denbora kronologi zerbait atxikitzeko (zaharrak eta berriak baitira...), eta haurren motibazioa atxikarazteko (ezagutzen dutena... deskubritzea...).

Régine Elosgi eta Ixabel Carricart

# Hiztegia ezagutu, landu, gogoan atxiki : **lore lexikala**





# Sekuentziaren desmartxa :

**Helburu nagusia :** Istorioa ulertu

**Baliabideak :**

- **Hiztegi berria** ezagutu, landu eta erabili
- **Egitura berriak** ezagutu, landu eta erabili
- **Irudi desberdinak** irakurri, ulertu, ahoz eta idatziz kontatzeko
- **Testu laburrak** irakurri, ulertu, ahoz eta idatziz kontatzeko

# Oharrak :

- Istorioaren lanketaren desmartxan sartu aitzin, komeni da **hiztegi eta egitura** berrien ezagutzeko ikasleei aktibitate « askatuak »\* proposatzea :
  - Cf Narramus desmartxak segitzen dituen hiztegi/egiturak deskubritzeko joko eta egoerak (altxor, kim, asmakizun jokoak...)
  - argazki, irudi deskribapenak
- Irakurketa eraikia desmartxak (*lecture à construire*) ikasleengandik **komunikazio eta hizkuntz gaitasun** zehatzak eskatzen dizkie bai ahozkoan baita idatzian ere. Ondorioz egitura berezi horiek finkatzea garrantzitsua da.
- **Argumentu/iritzia eman/esplikatu/justifikatu/adostasuna-desadostasuna adierazi...** (*uste dut... Pentsatzen dut... zeren... bait... /....lako/ ados naiz/ez naiz ados... beraz.... Orduan...*)
- **Kontatu** : istorioaren kronologia segitu, pertsonaiak ezagutu, beraien pentsamoldeak eta hautuak adierazi, lotura kausalak adierazi , testuak erraten ez duena adierazi .... (*Lehenik.... Ondotik.... Gero.... Azkenik.... Beraz..... Bat batean.... Ez ustean..... Baina.....halere... haatik...alabaina...*)

\* Activités décrochées

# Irakurketa eraikia *(lecture à construire cf : Maryse Brumont)*

- **Helburua** : Ikasle talde bakoitzak duen irudi edo/ta testu zatiarekin istorioaren trama berriz ere eraiki
- **Antolaketa humanoa** :
  - ikasleek 2 edo 3naka lan egiten dute. Elkar **adostu** beharko dute, **argumentatuz**.
  - Talde **homogenoak** egin daitezke : istorioaren inguruan hipotesiak egiteko eta trama berriz ere eraikitzeko 3. zikloko ikasleak **testu zatietatik** abiatzen dira, 2. zikloko ikasleak **irudietatik** abiatzen direlarik.
- **Antolaketa materiala** :
  - Irakasleak hautatzen dituen testu zatiak
  - Irakasleak hautatzen dituen irudiak
  - Talde bakoitzarentzat orrialde xuri bat, bildutako informazio eta galderen idazteko.

# Materiala : Testu zatiak (proposamenak dira beste hautuak posible dira!)

## 1. Taldeak :

Otso oso gormanta zen.

« Otso goseak, oiloa amets .»

Bat-batean, karrikan berean, ziztu bizian, mutturpean... oilo kamioi bat pasatzen...

## 2. Taldeak :

-Kaka zaharra, egiazko oiloak!! bota zuen Otsok.

Eta briu-brau, harrapaladan, lasterkatu zen.

Noizbait, nonbait, kamioa geldituko zen.  
Horra hor, bada, oilategia!

## 3. Taldeak :

Zer gerta ere, begi-ukaldi bat emanen zuen. Zango punttetan, gurbilki, oilategira hurbildu zen.

Ai! Ei! Harrigarri!

Argi artifizialak begiak itsutzen zizkion. Harramantzak belarriak tutatzen zizkion. Usain nazkagarriak mutturra erretzen zion.

## 4. Taldeak :

Zer atsekabea Otsorentzat!

Ez ziren oiloak kamioian, baina bai « Chicken-ball-Z »-ak!

Gero, kamioitik jautsi zen, eta emeki, polliki, ostatura hurbildu zen.

Borta ireki zuen, eta etsipen guziz, lerroan kokatu zen.

Bere aldiaren beha egonen zen.


Usaiako « Bik-Mak-Oilo » manatuko zituen.

# Materiala : Irudiak (proposamenak dira. Beste hautuak posible dira !)

## 1. Taldea : 2 irudiren arteko lanketa



eta



## 2. Taldea : 2 irudiren arteko lanketa



eta



# Materiala : Irudiak

**Talde bakoitzari :** 6 bisaien arteko lanketa



# Garapena :

- **1. urratsa : Antolaketa, materiala eta aginduak ulertu / barneratu**

Talde bakoitzak irudi edo testu zati bat badu.

- **2. urratsa : talde lana : iker egoera / indize bilaketa**

Talde bakoitzak irudietan edo testu zatian aztertzen eta biltzen dituen 2 ezaugarri / informazio idatziz adierazten ditu eta lagunei pausatu nahi dien galdera bat idazten du.

- **3. urratsa : Elkarretaratzea : trukaketa / eztabaida**

Bakoitzak bere aldian, idatzitako bi informazioak eta galdera ozenki ikaskideei erraten die.

- **4. urratsa : talde lana : argumentatu / hautatu / adostu**

Talde guziak pasatu eta, bildu dituzten informazioei esker eta haien galderari jasotako erantzunari esker , ondorioztatzen duten istorioa idatziz ekoizten dute.

- **5. urratsa : Elkarretaratzea : partekatu**

Talde bakoitzak bere istorioa gelari irakurtzen dio.

- **6. urratsa : Egiaztapena : hutsak ulertu / zuzendu**

Ekoiztuak izan diren istorioak, egiazko testu eta irudi sekuentzialekin parekatzen dituzte.

- **7. urratsa : Luzapenak**

Asmatutako istorioa literatura kaieran idatzi (edo beste nonbait) , aztarna atxiki

Testuak erraten ez duena interpretatu eta idatzi...



# Desberdinketa :

## **Ikasleen adinaren eta gaitasunen arabera :**

- irudi edo testuaren arteko hautua egin
- Irudi kopurua edo testu luzera egokitu
- Ustiapen hau ahozkoan bakarrik eraman daiteke ikasleekin
- Idatzian sartzen ari diren ikasleekin, informazio bakarra identifikatzea galdetzen ahal zaie, irakaslea taldez talde pasatzen da eta informazioa ikasleek dikataturik paperean (edo arbelean) idazten du. Elkarretaratzean trukatu diren informazio guziei esker, talde bakoitzak istorioaren trama marrazten du (edo ikasle bakoitzari ulertu duena marraztea galdetzen dio). Azkenik marraztutakoa ahoz kontatzen dute.